



Joxe Iriarte *Bikila*

♦ IDAZLEA

Iulen Madariagaren egia

EGIARI ZOR izenburu potoloarekin jantzi ditu Iulen Madariagak bere memoriak. Niri gehiegizkoa iruditzen zait halako izenburua, memoria kontuetan oso zaila baita norberaren egia hizki nagusiz idaztea. Gauza batzuk egiazkotzat jo ditzakegu: datak, gertaera jakin baten ingurua edota izen-abizenak, esate baterako. Alabaina interpretazio kontuak, narrazioa bera, norberaren memoriarekin oso lotuta daudenak, nik dudazkoak ditut. *Borroka*ren gorrian liburuan nire egia kontatu nituen, besteen egiekin eztabaidatzekoak, Iulenek zinezkotzat jotzen dituen zenbaitekin, esate baterako.

Hots, garaiko zenbait dokumentu berrirakurritu, ausartzen naiz esaten Iulenen bertsioa VI. Asanbladan gertatutakoaz (berarentzat Sasi-Batzar Nagusia) eta nirea kontraesanean daudela. “Barne-eztabaidaren arrazoa, azken urteetako berbera zen: zoin zen ETAre lehentasuna? Gizarte iraultza ala herri askapena?”, galdetzen du Iulenek, baita erantzun ere: “Herri askapena”. Baina nago, gauza bat dela une jakin batean zein atalek hartzen duten indar gehiago (diktatura garaian askatasun demokratikoak aldarrikatzea) eta oso bestelakoa, gizarte iraultza eta herria askapenaren artean lehentasunez hitz egitea. Bata besterik gabe posible ote?

Bestalde, bitxia egin zait zein sutsu eta ziur azaltzen den beti ETA V-Milien alde (trantsizioaren lehen urteetan barne), harik eta 80ko hamarkadan,

bere ustez, erakundeak norabide okerra hartzen duen arte, irabazitakoa pikutara bidaliz. Egia da garai hartan eman zituela ETAk jauzi gordin eta ankerrenak (kualitatiboenak), baina nago borroka armatuaren estrategia-izaeraren aldaketa aspalditik zetorrela –Correo kaleko atentatua, Angel Berazadi enpresariaren hilketa, Atotxako sarraskia–, nahiz eta efektu desberdinak izan diktatura edo demokrazia liberalean.

Bitxia zait zein sutsu eta ziur azaltzen den beti ETA V-Milien alde, harik eta 80ko hamarkadan, bere ustez, erakundeak norabide okerra hartzen duen arte, irabazitakoa pikutara bidaliz

Garai hartarako, Emilio Lopez Adanek (*Beltza*) argi eta garbi azaldu zituen aldaketa horien ondorioak (*): “Interpretazio ideologikoaren bidez ‘etsai objektiboak’ izendatu, edo hobengabekoen heriotza onartu, eta menperatzaile zuzenak ez diren pertsonal biktimak bezala hautatu, hori ezin dugu onartu. Azken finean, etikarik gabe ez dugu askatasunik izango”.

Nire elkartasuna Iuleni, hain zitalki eta bidegabe tratatua izanagatik, baina hori ez da berria: ETAre historiaren partaide garenok antzeko medizina irentsi edota irentsarazi digute. Gaur herexen mailu eta bihar ingude: ETA Berri, ETA VI, ETA pm, Iratzar, Aralar. Batzuentzat Otegi eta bere kideak *likiak* dira.

Ontsa izan, Iulen. Urte askotarako!

(*) Biziki gomendatzen dut ETAre *estrategia militarren historia*. Beltzaren azken liburua. ■



Kanporaketak



Mallabian, azaroaren 2an, 17:30ean, Mallabia I. Kirol Etxean



Arrate
Illaro
Etxebarria



Eneko
Arrate
Sololuze



Gorha
Ostolaza
Iharan "Potxis"



Malen
Amenabar
Larrañaga



Nerea
Ibarzabal
Salegi



Peru
Vidal
Gurrutxaga

www.bertsotzale.eus/bizkaikotxapelketa

